

## EMAN EUSKARARI BERA

## EZ-BAIKA

**E**USKARAREN aldeko errebindikazioa «*declaración de principios*» hutsa izatetik, pausu eraginkorrek ematera pasatu behar da dagoeneko. Guzión ardura da: norbanakoa, euskara ikasiz eta erabiliz eta Administrazioarena.

Euskararen egoerak kezkatzen gaituelako eta Nafar Gobernuaren aldetik dagoen euskararen normalizaziorako borondate politiko eskasa ikusita, baztandar talde desberdinetako kideak elkartu gara eta gure mintzairaren egoera aztertu ondoren, behar hauetaz ohartu gara:

Legeak, eremu eskaldunean euskara erabiltzeko eskubidea dagoela erraten badu ere, errealtatean hainbertze trabarekin topo egiten dugu:

— Osasunbideari dagokionean, Baztango hainbertze herritan erdaraz azaidu behar izaten ditugu eritasunak eta gainerakoak, zerbitzua eralduna delakoz.

— Hezkuntza arloan, eskualdean Derrigorrezko hezkuntza eta Ertai-neko ikasketak, euskaraz burutzen ahal badira ere, ez du gero honek ja-

Xabier BALLARENA / Baztango AEK, Baztandarren Biltzarra Elkarteak, Baztango Mendigoizaleak, EHNE, EHE, LAB, Doikel Euskara Taldea eta Xorroxin Elkartearen izenean

## Nafar Gobernuari

rraipenik unibertsitatera joanez gero.

— Helduen eskalduntze eta alfa-betaztea, herri ekimenaren esku

Guzión ardura da

dago erabat. Dirulaguntza eskasak emateaz gain, jaso ahal izateko ere bete ezinezko baldintzak eskatzen baitituzte: ikasle kopuru minimoa...



## KOLABORAZIOAK

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Hizkuntzalari eta idazlea

## Galeuzca

Egoera desberdinak ditugu erabat; eta honek ondorio psikologikoak dakartza

lanekin. Gure hiru problematikak oso desberdinak dira. «Oso» idatzi dut; eta ez da erratua.

Has gaitezen geure hizkuntzen distantziatik (gaztelaniara, jakina). Galiziera eta katalanera hizkuntza erromanikoak dira; gaztelaniaren antzekoak oso. Elkar-ulerkuntza ez dute automatikoki lortzen, jakina. Baina Burgosko batek lan handiagoa du lekeitiarekin moldatzen, Vich-ekoekin baino. Demostrazio beharrik ez. Gaztelaniak dakien batek aisa ulertzen du galiziera; eta ez horren aisa (eta hau oso adierazgarria da) portugesa. Piskanaka piskanaka, bertago dago antza galiziera gaztelaniatik, portugesez baino...

Hizkuntzalaritza hutsaren alderditiak, beraz, katalan-gaztelania elebitasuna, edo-ta galiziera-gaztelania elebitasuna, ez dira inondik ere euskara-gaztelania elebitasunaren kopia. Egoera desberdinak ditugu erabat; eta honek ondorio psikologikoak dakartza.

Orain alderaketa bera sozio-linguistikaren alorrean egiten badugu, ondorio bera dugu. Katalanak 10 milioi dira, zenbaki borobiletan; eta katalan guztiak dakite eta erabiltzen dute katalanera betidanik gaurte arte. Are Aragoiiko Ribagorzan ere, jendea katalanera mintzo da. Eta Pujol eskuindarra ez da hotzago hizkuntzaren defentsan. Carod-Rovira edo Angel Colom baino.

Galizako egoera ere oso desberdina da. Eta batez ere honengatik:

galiziera multzo galaiko-portugesaren adarra da. Ez dago praktikan distantzia linguistikorik: galiziar batek inolako trebakuntzarik gabe uler ditzake portugaldarrak; eta gauza bera izuletera. Bi hizkuntzak «*duas modalidades dun mesmo idioma*» dira.

Frankismoa baino lehenago, horretara, Galizako abertzaleek Portugalera begiratzen zuten. Castelao lusia zen; Murguía-Rosalía, Ponal, Viqueira, eta abar luze bat, bezala. Galiza-Portugal hausketara, espainolistek bultzatu dute, eta bultzatzen. Kanpotikako «galizizaleak» (ni neu barne, jakina) lusistak gara; Coromines hizkuntzalaria lusista den bazalaxe, edo-ta Coseriu errumaniarra.

Galiziarren problemak espainiar eragina du. Hizkuntzari dagokionez (eta horretaz ari naiz orain) Galizak aski du eskema diglosiko egiazko eta jatorra onartzea (goiko hizkera, portugesa; beheko hizkera, galiziera), bestela soluziorik ez duen hizkuntza problema bideratzeko.

Baina desberdintasunak ez dira horretan amaitzen.

Galiza emigratio-eskualdea da. Gehiago dira Madrilen, Buenos Airesen eta Trintxerpen bizi diren galiziarrek, Galizian bizi direnak baino. Katalunian eta Euskal Herrian, aldearantz gertatzen da (edo gertatu izan da, bederen). Galiziarrek eta guk problematika desberdinak ditugu. Gazteetarik heren bat atzerrira

— Nafar Gobernuaren menpe dauden bertze departamentuetan ere, ez zaie, gure zonaldera etortzen diren langileei euskaraz jakitea eskatzen gure zonaldera lan egitera etortzen direnean (mendizainak, suhiltzaleak, albaiteak etab.)

Estatuko Administrazioan bertze hainbertze gertatzen da (postetxean, epaitegian...).

— Euskara hutsen funtzionatzen duten komunikabideak hainbat traba pairatu behar izaten dute oraindik ere, erdarakoek inolako arazorik ez duten bitartean (irratien lizenziak...).

— Herri taldeek, elkarteek, kultur taldeek euskal kultur gintzari begirako hainbertze proiektu ditugu, baina kolokan daudenak diru nahikorik ez dagoelako aitzakiz.

Hau guziaz dela eta, garbi dugu gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea ez dela bermatzen, eta bema dadin eskatzen diegu Nafarroako instituzio politikoak, euskararen normalizaziorako Plangintza Orokorra behin betikoz.

Honexegatik bat egiten dugu EKBk Euskal Herri mailan bultzatzen duen «Emañ euskarari berea» kanpainarekin.

doa betidanik. Katalunian, aldiz, etorkin espainolak dira koska: ehunka milaka iritsiak, Franco-ren garaian batez ere.

Maila ekonomikoari dagokionez ere, antzeko desberdintasunak. Galiziarren «*per capita*»-ko maila, espainiarrena baino apalagoa da: bi heren, gutxi gora behera. Katalanen eta eskaldunon erditsua. Galiza kolonia da, hein batez; eta antz handiagoa du Andaluziarekin, adibidez, Euskal Herriarekin baino.

Galizako buruzagi ofiziala Fraga da. Eta Franco («*ce général portugais*» esan ohi zuten Fontan okzitanistak) galiziarra zen. Ez baita hemengo planta... Katalunian, berriz (Printzerriaz mintzo naiz orain; baina Valencia eta Balears kontutan hartuz gero, okerrago), errejonialak dira nagusi. Hizkuntzari eutsi diote; baina España barruan jokatu nahi dute. Eta hau ere ez da hemengo giroa; Arzalluzek eta bestek ahal izan duten gutzia egin badute ere euskal arazo arazo errejonial (irtenbiderik gabeko, beraz) bihurtzeko. Francesc Macià urrun gelditu da Pujol-enganetik.

Badirudi, hitz batez, Francoren ondoren euskal arazoak gainditu duela frankismoaren eta demografierosen eronka. Bestekek?

Euskaldunok, hitz batez, gutxi ikas eta irabaz dezakegu «Galeuzca» famatu horretatik («Gutxi» diot. Baina borrokakideak nonahi bilatu behar dira, jakina). Baina Galeuzcak indartu egiten du «ezen-larrua»-ren tentabidea. Zer sendi dezake horretaz Donapaleuko abertzale batek? Zergatik ez «Bre-Ross, Cor-Euz» ez dakit zer? Simetrikoa litzateke. Baina... «à la sauce française»; eta guk «*cocido madrileño*» nahiago.

**B**ERRIRO izana naiz Galizan. Vigon preseski. AGAL erakundeak urtero antolatutako ohi duen Biltzarrean.

Bestetan bezalatsu, portugez batzuk, brasildar batzuk, katalan batzuk, irakasle gailen eta internazional batzuk, euskal unibertsitari bakar hau, eta galiziar mordo bat. Beiras-en partiduko buruzagi eza-gunik ez: BNG alderdia urrun dago AGAL-en lusuismotik. Hizlanak, oro har, unibertsitatean ari den jendea. Entzuleak ere, ikasle jendea.

Maria do Carmo Henriques irakaslearen lankideek ez dute inolako Galeuzca-rik osatzen. Parte hartzaileen multzoak Estatu espainoleko mugak gainditzen ditu nabarmenki. Hori dela-ta, prentsa txarra dute bilera hauek; eta laguntza ofizialak urri.

Hots, oso arazo garrantzitsua den «*alianza político*» delakoaren alorrean sartzen da. Nork esan du, eta zergatik, euskaldun abertzaleon elkarketarik normalena eta interesgarriena Gal.Euz.Ca hirukuna denik? Beti entzun izan dugu hori. Baina berriro ere egun hauetan zalantza bera ekarri dut Galiziatik.

Ikuspegi ofizialistek hau diote: «*Galicia y Euskadi son dos de las tres nacionalidades del Estado español*». Egia dea hori? Beste batzuk harago joaten dira: «*Cataluña, Aragón, Canarias, Navarra, Vascongadas, Andalucía, son todas nacionalidades componentes de España*». Bestela esanda, «*son los pueblos de España*».

Hots, A. Xosé Martiño Montero apaizak aspaldian erabilitako hitzez esateko, gauza bakar batek elkartzen gaitu hirukote horretan: «*nuestra sujeción común a un Estado unitario*». Normala da guk abertzaleok arazo handiak izatea galiziarrekin eta kata-